

HERRIAK EBOLUZIOTIK ERATORRIAK

Errezil (2006.1.3)

Azpaldi honetan aurrehistoriako giza-taldeen bizimoduaren berri zorronez gero eta ezagutza handiagoa dugu. Era berean, geure barne munduaren edo kontzientzia moralaren lehen ikasgaiak ordukoak direlaren uste osoa areagotzen ari zaigu. Ez hori bakarrik, animaliekin batera bizi ziren giza- taldeek, euren bizi iraupenerako eta defentsarako, talde osoaren onurako sakrifizioak burutzea onesten hasi ziren.

Harrez geroztik, taldean bizitzeak zekarren balio eta estimua garatuz joan da. Ondorioz, "bertute" eta "bizioa" kontzeptuak gizakiengan ezezik, animalia- taldeetatik eratorri eta oraindik bere horretan izaten jarraitzen dute. Egia esan, herri batzuk euren helburuak asetu ahal izateko besteak menperatzera jo izan dute; beste batzuk, ordea, horren ondorioz edo talde helburuak bermatuak ahal izateko barne elkartzera egingo dute. Lehengo hariari jarraituz, herri barneko kontraesanak moralaren heriotza ekar dezakete, herrien energia xahutzen duen harra baita. Hori horrela izanik, sozializazioa eta elkarren arteko laguntzaren garrantzia, herrien garapenerako abiapuntu ziurtzat ezarri behar genuke.

Giza-bizitza soziala hasiera-hasieratik, eta neurri batean, taldekideek taldearekiko interesen identifikazioan eman zen. Hala nolako eboluzioa orokorra eman bada, gizaki bakoitzak bere kabuz bere bizitzaren zehar moralaren zentzua jaso duen ideia arbuigarria litzateke. Zentzu morala senezko edo berezko sentimendu sozialetatik datorkigunaren ustea, ustea baino gehiago dela esan dezakegu. Animalietan horrelako zerbait gertatzen dela dirudi.

Sentimendu sozial instintiboak benetako moralaren oinarriak lirateke. Elkarren arteko sinpatia kide-adiskidetasunaren sentimendua litzateke, elkar eragiten dutenak, hau da, gizakiak beste kidekoengan zerikusia izan dezakeen zentzutuan, noski. Animaliak instintu sozialez horniturik, gurasoen eta seme-alaben laztanak barne, zalantzarik gabe ailega daiteke zentzu moral edo kontzientzia morala izatera, baldin eta euren adimena giza-intelektu maila lortzen badute.

Hasierako giza-gizarteetan hitzaren erabilera garatuz doa, eta horrek herriaren irrika eta desioei espresio bidea eman zezakeela ikusiz, iritzi publikoan erabiltzeko tresna egokian bilakatzen da, gizartekide bakoitzari dagokion jarrerarako gida garrantzitsu eta boteretsuan bihurturik.

Kontzientzia moralak, beti iraganera begira dagoena eta etorkizunerako gida izanik, erruduntasunaren, aurpegiratze gogorrek jasatearen eta auzo-lotsaren moduko jantzia har lezake. Hori, bereziki, sinpatia iradokitzen dietenetik eratorria bada ematen da. Are gehiago, poliki-poliki, eguneroko ohiturak kontzientzia moldaraziko du, instintu eta sinpati sozialak norbanakoaren pasio eta desioekin gero eta bateratze lotuagoak eginik.

Bi instintu horietatik soziala banakoa baino indartsu, iraunkor eta etengabeagoa dirudi. Elkar laguntzea animalien munduan garatua dago hautaketa naturalak espezieek bizi iraupenera jotzen baitute. Horregatik, elkar laguntza gauzatzen duten espeziek garaileak ateratzeko posibilitate handiagoa dituzte. Adibidez, animalien ibilaldi luzeetan elkar laguntza oso garrantzitsua izateaz gain, espezieen iraupenerako ezinbestekoa dirudi.

Gizakion instintu soziala, gugan eta animali sozialetan jaiotzetikoa, ideal etiko ororen eta ondorengo garapen moralaren iturburu da. Beregan eraikia dago etika guztia. Bizitza soziala, ez ni-a gu-a baizik, horra hor bizitzaren izaera naturala. Bizi-arnasa bera da. Esan daiteke, -ni-a GU-a batetan-, herrian urtzean, identifikazio horretan datzala pentsamendu etikoaren sorrera. Etikaren jaiotza banakoa eta talde osoaren identifikazio horretan datza; hortik bertatik justizia eta beste zenbait kontzeptu moral eratorriak izan dira. Garai haietan tribu-kideak ni-a eta gu osoaren arteko identifikaziora ohitu beharra izan zuten, modu horrek lege moralak sortaraztea dakar. Tribuan bere burua aurkitzen du, bertako partaide bat baino ez dela sentituz. Taldekide ez izateak, hau da, taldetik isolatua egoteak natura eta inguruarekiko inpotentzia eta ezina sortzen baitio. Arrazoi hori bitarteko, talde borondatearekiko poliki-poliki bere borondatea egokitzen hasten da, eta gertakizun hori banako moralean funtsezko oinarria izango da.

Antzinako taldeen "heziketa" milaka urteren jarraipen eta era bereko sozializazioaren instintua lantzen doa. Denboraren poderioz, banako arrazonamendua baino indartsu eta eraginkorragoa egingo da. Animalia komunikatiboak adin-txikitan hasten dira ikasten, beraien jokoetan arau orokorrak onartzea behartuak baitaude. Taldearen nahiak banakoarena berea egiten du: migrazioen hegaztien prestatze-lanak hori erakusten digute, azken finean taldearen gidaritza borondate sozialaren barne gelditzen da.

Animalien munduan, jadanik, banako borondatea bere taldekoarekin harmonizatzen dela egiaztatuta dugu. Ohiturak eraginda, denen arteko talde borondate hori berezko instintu bihurturik herentziaren bidez ondorengoetara pasako da aurrerantzean. Hori horrela, zehazki, talde borondatean zuzenbidearen hastapenak jarri beharko ditugu. Behin komunitatea izanez gero, bere baitatik bizitzeko erak, ohiturak, usuarioak eta... sortzen dira. Taldeak baliagarritzat hartzen ditu. Eta adimena lagun, emeki-emeki ohitura eta arauak izatera pasatzen dira. Horrela sortzen da gure moralitatea eta denborarekin areagotzen saiatuz belaunaldi batetik bestera pasako da.

Herrien moralitatea horrela sortu eta landuz joan da, eta ikusten dugu horientzat lotsagarria dela beldurra izatea ezinbesteko heriotzari, etsaiei barkamena eskatzea, frogatutako lapurra izatea, kailan txalupa ahaztea... Instintu sozializaziotik, hau da, taldean bizitzaren desioa edota behar soiletik, elkarren arteko erlazioetan denen ona beharrezkoa zelaren uste osora, elkar bizitza mantentzea planteatu zen une berean gertatu behar izan zuen.

Hain zuzen, giza-talde bakoitzean taldekidearen desioek eta pasioek beste taldekideekin egiten dute topo ezinbestez, eta horietan sor daitezkeen larrialdi horiek ez badira ondo

bideratzen, zoritxarrez, taldea okertzero edota zatitzera eramango dute, baldin eta taldekideek eskubide berdinak izan behar dituztela ez badute onartzen. Gizakiok hitz egiteko dugun dohainari esker, -adimena garatzea dakar- bizitza sozialaren arauak landu izan dugu, guk espreski moralitatea deitu izan dioguna.

Ongia eta Gaizkia kontzeptuak, giza-egitean landuak, taldea osoa partaide izanik, ez ditu ideia moralak giza-banakoa soilik erreferentziaz hartuz sortzen, giza-talde osoarentzako ona edo txarra izan daitekeena kontuan hartuz baizik. Bere bizitzaren oinarri da, eta, ondorioz, taldearen onurako diren arauak betetzen ditu, eta, zenbaitetan, egoerak hala eskatzen badio bere bizia ematen du. Hitz gutxitan esateko, bertatik arau nagusia datorkigu: "Norbera guztientzat, eta guztiak norberarentzat". Sozializazioak hominizazioan ez ezik humanizazioan eragile nagusia da, eta moralaren sorrera hor datza, hain zuzen. Gizakien adimen eta gizartean bizitzeari esker, jarduera moralak garatu eta indartzen ditu, helburu morala beti bizitza soziala mantentzea delarik.